

## OGIA ETA LOREAK

DENBORA: 4 ordu

### IKASKETA-JARDUERAK

#### 0 OGIA ETA LOREAK

**Helburua:** Lan eta greba kontzeptuei buruz hausnartzea.

**Deskripzioa:** Azaleko argazkia ikusita, saripeko lanari buruz eta grebari buruzko elkarrizketa abiatuko da.

**Orientabideak:** Elkarrizketaren bidez, bi kontzeptu bereizi behar dira: aisialdia/dibertsioa eta lana (eskola gure lantokia da), alde batetik, eta saripeko lana eta sari gabea, bestetik. Ondorioa: saripeko lanaz (gure lan-indarra salduz) gure funtsezko premiak asetzeko ondasunak eta zerbitzuak erosteko dirua lor dezakegu. Zerrenda bat egin: duintasunez bizitzeko funtsezkoak diren premiak (elikadura, etxebizitza, hezkuntza, ingurumen osasungarria...), eta funtsezkoak ez direnak.

Saripeko lana ezin eskura daiteke edozein prezioz. Azkenean, grebari buruzko eztabaida abia daiteke: greba-eskubidea eta grebaren erabilgarritasuna, kontuan hartuz lanean ere giza eskubideak errespetatu behar direla. Horiek ezean, greba izan ohi da saripeko langileek duten tresna baketsu ia bakarra beren eskubideak babestu eta defenditzeko defenditzeko.

#### 1 DUINTASUNEZ LAN EGITEKO ESKUBIDEA

**Helburua:** Jolas baten bitartez, nazioarteko merkataritza-sistemak ahalbidetzen dituen lan-harremanetan dagoen botere-erlazioaz jabetzea. Injustizia-egoerak jasaten duten injustizia-egoeraz konturatzeko.

**Deskripzioa:** Bosna edo seinako taldeak osatu, eta bakoitza bere kabuz jolastuko da. Istorioa irakurri eta, ondoren, talde bakoitzak erabaki bat hartuko du begien parean jarritako arazoaren aurrean. Irakasleak denbora banatuko du, eta analisia egiteko elementuak gehitzen joango da. Lehen testua irakurri eta 10 minutu utziko ditu eztabaida egiteko. Gauza bera egingo da bigarren eta hirugarren testuak irakurrita, baina 5 minutu utziko dira eztabaidarako. Azkenean, talde handian batuta, jolasean sortutako erantzunak eta egoerak azalduko dira.

**Orientabideak:** Kontuan hartu jolasa dela eta arau batzuk dituela jolasak. Errealismoa garrantzitsua da, bromak alde batera utzi behar dira. Jolasak eta azkeneko galderek enpresa handien boterea aztertzeke balio dute, baina garrantzitsua da gogoratzea enpresak ez direla erantzukizuna duten bakarrik. Herri aberatsetako gobernuek beren botereak ematen dizkieten abantailak baliatzen dituzte etekin ekonomikoak herri pobreen kontura eskuratzeko. Bestalde, herri pobreetako gobernuek enpresen interesak lehenesten dituzte langileen eskubideen gainetik.

1.testua:

Abisatuta zaudete: berehala lanera itzultzen ez diren langileak kanporatuak izango dira. Ezinbestekoa da produktiorako. Gainera, ugazabek zuen izenen zerrenda pasatu diete beste makiletako nagusiei. Lan hau galtzen, agian beste inork ez zaituzte kontratatuko. Baina baldintza hauetan lanera itzultzen bazarete, ez duzue ezer lortuko: lana gordetzea bakarrik. Zer erabaki behar duzue?

2.testua:

Lantegiaren ateetan jende-sailak daude, zuen lana egingo duten langile berriak kontratatzeke. Jende honek ez daki zer gertatzen ari den, eta zuek bezala lana behar dute familiei jaten emateko. Zer egin?

3.testua:

Lau egun joan dira greba hasi zenetik. Zuen etxeetan bizpahiru egunetarako jatekoa dago, ez gehiago, eta dirua ere eskas... Ugazaben mezulariak azken hitza eman du. Hauxe erabaki du enpresak: 24 ordutan lanera itzultzen ez bazarete, lantegia itxi egingo da, eta produktioa beste herri batzuetara eramango dute. Han zuen lantegian baino baxuagoak dira soldatak. Aldiz, lanera itzultzen bazarete, ehuneko %10 igoko da zuen soldata, baia oraingoz ezinezkoa da gainerako baldintzak betetzea. 24 ordu (zuen kasuan, 5 minutu) geratzen dira azken erabakia hartzeko. Zer erabakitzen duzue?

#### 2 JOLASETIK ERREALITATERA

**Helburua:** Kasu konkretu bat aztertuz, Hegoko hainbat herritako lan-alorra ezagutu eta Nazioarteko Lan-Erakundean (OIT) bildutako lan-eskubide batzuk identifikatzea.

**Deskripzioa:** Azulema langile marokoarrari egindako elkarrizketa irakurri eta ulertzen saiatu, munduko milaka langilek bizi duten egoera eza-gutzeko.

**Orientabideak:** Irakurketa kolektiboa egin eta ulertu ondoren, lan-eskubide guztiak betetzeko askatasun sindikalak duen garrantziaz arituko gara. Historiak erakusten digu langileen borroka eta sakrifizioari esker erdietsi direla eskubide horiek guztiak "mendebaldean" (oraindik baditugunak). Gainera, batasuna eta kolektibitateari esker erdietsi direla erakusten digu. Banaka ez da inoiz inongo eskubiderik erdietsi. Lan formal eta informalarri buruz ere hitz egin daiteke, eta konturatu erdiesklabotasuna ere badela, desregulazioari esker.

---

### **3 LANGILEEK ESKUBIDEAK DITUZTE**

**Helburuak:** Nazioartean ezagututako Lan-Eskubide batzuk ezagutzea. Lan-eskubide horiek gure herrian betetzen ote diren aztertzea.

**Deskripzioa:** Langile guztienak diren lan-eskubideen zerrenda egingo da.

**Orientabideak:** Ikasleek familiatik bertatik dituzten ezagutzak oinarri hartuz, langileek zer nolako eskubideak ditugun idatziko da arbelean. Eskubide horiek non ez diren betetzen komentatuko dugu, ikasleek jarritako kasuak kontuan hartuz. Azkenean, ikerketa-lan bat proposatuko diegu: OITren orria kontsultatu eta, gero, horma-irudi bat egitea.

---

### **4 BAINA HONEK GUZTIAK ZURI ZER?**

**Helburuak:** Kontsumitzen ditugun hainbat produktu lan-eskubideak betetzen ez dituzten herrietatik datozela konturatzea.

**Deskripzioa:** Ikerketa-lan baten bitartez ohiz kontsumitzen ditugun hainbat produktu nondik datozen ikusiko dugu, eta lotura bat ezarriko dugu lan-eskubideen eta gure "ongizatearen" artean.

**Orientabideak:** Talde txikitan banatuko dugu ikastaldea. Proposatutako sei ataletatik bat landuko du bakoitzak. Batera jarri eta herrietako lan-egoera ikusiko dugu. [www.transnationale.org](http://www.transnationale.org) kontsultatuz lor daitezkeen markak aztertu ahal dira. Ariketa osatzeko, Rosalie-ren kasua aztertuko dugu, haurren lana (deseskolatzea eta pobrezia zirkulua) eta pobrezia feminizatzea azaltzen baitzaigu hor, emakumeak izanik lan-zapalkuntza gehien jasaten dutenak, gizartean eta familian jasandako genero-zapalkuntzaz gain.

---

### **5 ZER EGIN DEZAKEGU GUK?**

**Helburuak:** Egoera aldatzeko egin diren mobilizazio-, salaketa- eta antolaketa-kasu batzuk ezagutzea.

**Deskripzioa:** Herritar aktiboa izateko ideia batzuk ematen dira, eta gaia sakontzeko lan-ildo batzuk ere bai.

**Orientabideak:** Partzialak eta minoritarioak izan arren, irtenbide batzuk eskaini behar zaizkie ikasleei. Munduko hainbat jendek pairatzen duen injustizia-egoera aldatzeko proposamenak dira. Adibidez, ikasleen auzoetan zerbaiten aldeko mobilizazioak egin ote diren komenta daiteke: parte hartu ote duten, eraginkorrak direla uste ote duten, garrantzitsua ote den herritarren iritziak entzutea, pertsona guztien eskubideak errespetatzea helburu duten ekintzak ezagutzen ote dituzten —adibidez, kontsumitzaile garenez, modu kritikoan kontsumituz egin dezakeguna—, nazioarteko merkataritza-arauak aldatzeko eta Langileen Eskubideak babesteko ekintzak badirela ba ote dakiten, etab. Adibidez, iker itzazue ondoko kanpainak: "Ropa limpia" ([www.pangea.org/ropalimpia](http://www.pangea.org/ropalimpia)), "Comercio con Justicia" ([www.comercioconjusticia.comunicación](http://www.comercioconjusticia.comunicación)). Talde txikitan batuta, azter ezazue kanpaia horiek nori zuzenduta dauden, zer emaitza ematen duten, nola parte har daitezkeen, etab. Amaitzeko, horma-irudi handi batean edukiak islatu.

Alternatiba- eta proposamen-zerrendak egin ditzakegu, bakarka edo modu kolektiboan gara ditzaketenak.

Ikasleek web orri hau kontsulta dezakete: <http://www.intermonoxfam.org/conectandomundos>, DBHko ziklo guztientzako proposamenak baitaude.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

OGIA ETA  
LOREAK



Egilea: Jennifer Williams Ramos



Intermón  
Oxfam

# DUINTASUNEZ LAN EGITEKO ESKUBIDEA

Ehungintza-lantegi bateko langileak zarete. Oso zaila izan da enplegu hori lortzea, San Salvador-en jende asko baitago langabezian.

Egiten duzuen arropa Europan eta Ameriketako Estatu Batuetan saltzen da, oso marka ezaguneko etiketekin.

Hauek dira zuen lan-ordutegiak:

Astelehenetik ostegunera 6:45etik 19ra, eta larunbatetan 6:45etik 14:00etara.

Egunotan elastikoak josten ari zarete. Zuetako bakoitzak jostura bat egiten dio elastikoari. 250 elastiko egiten dira orduko. Oso arin lan egin behar duzue, eta hutsegiterik gabe: jostura bat eta beste bat, burua makinatik altxatu gabe. Erabat amaitu gabe dauden jantziak ez dira onartzen, eta zuen soldatetik kentzen zaizue.

Egun batzuetan ezin duzue helburua bete eta ordu gehiago lan egin behar dituzue, baina ordaindu gabe gehienetan.

Bestalde, ordaintzen dizuten soldata ez da nahikoa familiaren funtsezko premiak betetzeko. Lantegiko lan-baldintzak ez dira oso onak; komunak eskasak dira, eta bero handiegia egiten du ia urte osoan, ez baitago haizagailurik. Norbait gaixo jartzen bada eta hiru egunetan huts egiten badu, kanpora joango da zuzenean.

Beste esperientzia batzuetatik ikasi duzue banakako protestak gutxi balio izaten dutela eta enpresak kanporatu egiten dituela konforme ez daudenak, jende berria kontratatuz.

Horregatik, oraingoz, ahalegin handia eginez, langileen elkarte bat sortu duzue. Optimistak zarete, langileen %80k bertan parte hartuko dutelako.

Azkeneko batzarrean greba egitea erabaki duzue, eta ugazaben ordezkari bat mezu bat ekartzera etorri da zuengana: enpresak elastiko-kopuru handi bat egin behar du ahalbait arinen Europako multinazional batentzat. Eskaria bi egunetan ez bada betetzen, Europako enpresa horrek ez dizkio elastikoak erosiko zuen lantegiari. Mezulariak dio berehala lanean hasten direnek ez dutela zigorrik izango. Eskaria berehala egiten bada, enpresa prest dago soldata-hobekuntzei buruz hitz egiten hasteko. Beste eskakizunei buruz, deus ez.

Mezularia joan denean, zer egin eztabaidatzen hasi zarete. Batzuek mesfidantza dute ugazaben aginduekiko. Beste batzuen iritziz, amarrua da elastikoak berehala egiteko. Batzuek diote onena berriro lanean hastea dela. Erabaki bat hartu beharra dago. Zein da zure iritzia?

Nola sentitu zara jolasean?

Arazoa modu egokian konpondu al duzue? Zergatik?

Justua al da azken emaitza? Zergatik?

Zertan dute antza jolas honek eta errealitateak?



Azulema Allemm-ek 27 urte ditu, eta Tanger-en bizi da. Zori ona izan duen langilea da Azulema. Klandestinoak ez den lantegian lan egiten du. Tanger-en duden lantegi horietako batean, hain zuzen.



## Irakurri Azulema-ri Tanger-en 2002ko irailean egin zioten elkarrizketa:

**Lehen galdera ezinbestekoa dela dirudi. Askoz ere hobea al da lantegi legeztatuan lan egitea, ekonomia informaleko batean lan egitearen aldean?**

Jakina, askoz ere hobea da. Baina ez lantegian ondo egon naitekeelako, baizik eta lantegi klandestinoetan oso gaizki daudelako.

**Baina, gutxienez teorian, lantegi legeztatuek indarrean dagoen legedia betetzen dute, ez da?**

Ezin dut denen izenean hitz egin. Baina argi dago horrela ez dela. Legedia berez ez da hain txarra. Kontua da inork ez duela hartzen ardura legea betetzen den edo ez kontrolatzeko.

**Baina kontratuak sinatzen dira, ez da?**

Jakina, eta normalean ugazabek kotizatzen dute langileen zerga Gizarte-segurantzian. Gauza horiek modu egokian betetzen dituzte. Ia langile guztiek legeak behartzen duen gutxieneko soldata jasotzen duten arren, oso gutxi jasotzen dute gutxieneko hori baino gehiago.

**Soldata-arazo hutsa al da?**

Ez, askoz ere gauza gehiago daude. Adibidez, ordezkariak sindikalik eza. Sindikatuak legez onartuak dira, baina praktikan enpresek estutu egiten dituzte sindikatuak edo beren eskubideekiko interesa erakusten duten langile guztiak.

**Eta zer gerta daiteke?**

Zuzenean kanpora zoazela. Azken boladan zuzurrago jokatzen dute, eta mailaz maila aritzen dira. Lehenik publikoki presionatu eta izen ona kendu. Gero lan-kategoria jaitsi. Ondoren, zure lanari ez dagokion soldata ordaintzen dizute. Eta azkenean, kanpora zoaz.

**Eta zein da langileen aukera?**

Horretan gaude, bide berriak urratzen. Beharrezkoak dira aldaketak: elkartetan biltzeko modu berria eta lan-erreibindikazio gehiago. Zeren orain arte gauzak ez badira ondo joan, behartuta gaude bide berriak saiatzera, gauzak hobetzea nahi badugu.

*(La moda un tejido de injusticias liburitik hartuta. Ropa limpia izeneko kanpaina, Bartzelona 2003).*



**¿Qué derechos como trabajadora crees que tiene Azulema y que no se están cumpliendo?**



## Ezagutzen al dituzu beste lan-eskubide batzuk?

Taldeka batuta, egin ezagutzen dituzuen eskubideen zerrenda. Informazioa batera jarri, ondoko alderdiak kontuan hartuta:

Lan-kontratua:	
Eguneko lan-jarduna:	
Ordu bereziak:	
Gizarte-prestazioak:	
Haur langileak:	
Askatasun sindikala:	
????	



## Iker dezagun

Bilatu informazioa langileen lan-eskubideei buruz. Adibidez, Nazioarteko Lan-Erakundearen (OIT) web orria irekiz: [www.ilo.org/public/spanish](http://www.ilo.org/public/spanish) eta erantzun ondoko galderari:

Zer dira lan-eskubideak?

Zeintzuk dira gai horren inguruko nazioarteko akordioak?

Zer neurri ezarri dira eskubide horiek betetzen direnentz ikusteko, bai gure herrian zein mundu osoan?

Zer da sindikatu bat?

# ETA... HONÉK GUZTIONÉK ZUREKIN ZER?



Rosalie dut izena, 17 urte ditut, filipinarra naiz

Manila inguruko lantegi batean ari naiz. Piezak muntatzen ditugu, ordenadorez. Oso aspergarria da lana: pieza bat, beste bat, bestea... Eta horrela ordutan. Lantegia zikin-zikina da, eta batzuetan ez da erraza izaten arnas hartzea bera.

Hamar urte nituela utzi nuen eskola amari laguntzeko, aita hi egin baitzen. Euro erdia baino gutxiago ordaintzen didate orduko.

Hamahiru urtez hasi nintzen lanean, eta hainbat lantegitan ibilia naiz, produktu ezberdinak egiten: elastikoak, prakak, oinetakoak, jostailuak...

Hirurogei eta laurogeigarren hamarkadaz geroztik, marka europar eta amerikar handiek Asia eta Ertamerikako lurraldeetara eraman dituzte euren produkzioak. Han ez baitago lan-araudirik (gutxieneko soldatak, askatasun sindikala, eguneko lan-jardunak, aseguru soziala...) ez eta ingurumenarekiko legedirik ere.

Herrialde horietan beste enpresa batzuk erosi edo azpikontratatu dituzte maiz, zergak ordaindu gabe.

Sarri umeak erabiltzen dituzte, merkeak eta menpekoak direlako.



**Bila ezazu made in... ohiko produktuetan.**

**Etiketak begira ditzakezu, dendan edo etxean.**

**Gutxienez, ondoko zerrenda honetako produktuak begiratzea komeni da.**

- Elikagaiak: arraina, fruta, kontserbak, galletak, esnekiak.
- Jantziak: barneko arropa, elastikoak, prakak, kirol-oinetakoak, jertseak.
- Etxeko produktuak: etxeko tresna elektrikoak, lanparak, altzariak, garbiketako produktuak.
- Higiene pertsonala: hortzetako pasta, xaboiak eta xanpuak, kremak eta makillajeak, desodoranteak, koloniak eta ilea finkatzeko likidoa edo brillantinak, konpresak eta tanpoiak.
- Botinika: kotoia, tiritak, alkohola, iodoa, bestelako botikak.
- Aisialdia: bideo-filmak, play-stations, ordenadoreak, sakelako telefonoak, kirol-materiala.



**Batu zaitezte taldetan.**

**Amaitutakoan, jarri batera ikertutakoa eta egin horma-irudia ikasgelan esekitzeko.**

